

2020ko agorrilaren 31ko Herriko Kontseilua

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andereak eta BARBIER, BARNECHE, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak.

Ezin etorria jakinarazia zutenak: BISCAY jauna

Bilkurako idazkaria: SABALOUÉ Virginie anderea

Aiherrako Herriko Kontseilua 2020ko agorrilaren 31n bildu zen eta hau deliberatu zuen:

1. Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia

INBESTIMENDUAK	
GASTUAK	
2315 – Herriko bideak – 143. operazioa	-2500
2313 – Elbarrituendako helgarritasuna Herriko Etxean – 172. operazioa	2000
27638 – Beste erakunde publikoak	500
OROTARA	0

2. Herriko Kontseilari baten izendatzea hauteskunde zerrenden Kontrola Batzorderako

Hauteskunde zerrenden Kontrola Batzordeak aitzinetikako administrazio errekurtsioei buruz erabakiak hartzeko ardura du, baita ere hauteskunde zerrenden erregulartasunaren bermatzeko ardura.

Auzapezaren egitekoa da erabakiak bakarrik hartzea hauteskunde zerrendetan izena emateko galdeak badirelarik, eta berdin zerrendatik izenak kendu behar direlarik.

Kontrola Batzordea hiru kidek osatzen dute:

- Prefetak izendatu administrazio ordezkari batek
- Auzi Zibilen auzitegiak izendatu ordezkari batek
- Herriko Kontseiluak izendatu Herriko Kontseilari batek

Herriko Kontseiluak aho batez Anne Marie DARGUY izendatu du Herriko Kontseiluko hauteskunde zerrendaren Kontrola Batzordean ordezkari izateko, eta 2020ko irailaren 1etik goiti bilduko da batzordea.

3. Gozategiaren behereko partean den merkataritza egoitza uztea NEC HIGIENEA ETA ZERBITZUAK sozietateari

NEC HIGIENEA ETA ZERBITZUAK sozietatearen kudeatzaile den Benjamin FAURE jaunak (erauzgailu eta sukaldeetako urina kentzen du, kedarra garbitzen, teilatuetako goroldioa kentzen, garbiketa industrialak egiten, arratoigabetzen, desinfektatzen...) nahi lituzke 60 m²-ko beste 2 zati eskuratu bere biltegi profesionala han plantatzeko.

Proposatua den prezioa: 55 000 € (2 x 27 500€)

4. Gozategiaren behereko partean den merkataritza egoitzaren uztea TEC ZERBITZUAK sozietateari

TEC ZERBITZUAK sozietatearen kudeatzaile den LESIEUR jaunak 60 m²-ko beste zati bat eskuratu nahi du.

Proposatua den prezioa: 27 500 € (jadanik eskualdatu zaion beste zatiarekin, orotara 52 500 €)

5. GOZATEGIKO obrak (antolatzeak diren gelatan zatikatzea)

Gozategiko obraren kariatara kontsulta prozedura bat eraman da prozedura egokituaren bidez, eta merkatuak hauei ematea proposatu da:

ZATIA	ZATIEN FINKATZEA	ENPRESAK	ZENBATEKOA (BEZa gabe)
1	Obra larria	GAMIETA ESM	25 736.65 €
2	Kanpoko leihoak	LABASTERE	26 554.48 €
3	Plastre lanak	BERHONDO	9 673.60 €
4	Tindu lanak	PEYO INDART ESM	2 910.00 €
5	Elektrizitatea	ETCHEPARE	11 278.00 €
6	Idazkuna	YES	10 263.00 €
			<hr/> 86 415.73 €

6. Karga Eskualdatuen Lekuko Ebaluazio Batzordearen (KELEB) kideen izendatzea

Karga Eskualdatuen Lekuko Ebaluazio Batzordearen (KELEB) sortzeko eta osatzeko, herriko etxe bakoitzari galdegina zaio bere ordezkari tituludunaren eta ordezkorearen izendatzea, eta hauek Herriko Kontseiluko kide behar dute izan.

Oroitarazten da batzorde horrek Euskal Elkargoari eman kargen zenbatekoa eta irabaziak ebaluatuko dituela, zeinak Euskal Elkargoari esleitu eskumenei doazkien.

Herriko Kontseiluak izendatu ditu KELEBen Herriko Etxearen ordezkatzeko:

- Frédéric HERNANDEZ, ordezkari tituluduna,
- Samuel BISCAY, ordezkaria.

7. Berreskuratu ez daitezkeen produktuen baliogabetzea

Hartzaile nagusia den GABARRUS andereak galdatu du 664,67 €-ren baliogabetzea.

Kontsideratuz dirutza hori ez daitekeela berreskuratu, izkirioz bilduak diren arrazoi eta oharren arabera, GABARRUS andereak froga erakutsi duela emaitzarik gabeko jaukimenduak gerta daitezkeela, edo ezin izanen direla probetxurekin erabili, zordunen heriotzaren, porrotaren edo kaudimen ezaren ondorioz,

Herriko Kontseiluak erabaki du 664,67 €-ren baliogabetzearen onartzea 2020ko kontu aldiko aurrekontuan.

8. Hauts gunearen araudia (ikus atxikirik den araudia)

- Oroitzapen lorategia
- Hauts kutxa hilobien gunea

9. Bikaldegiko bidea herriko bideetan sartzea

2010eko maiatzaren 17an erabaki zen eraikigarriak diren Gaineke plazako 3 lursailletara heltzen den bidea herriko bideetan sartzea, bidea herriari egoera onean utzia izateko baldintzarekin (hiru geruzako estaldura egina). Obra horiek eginak baitira, jabeek galdegin dute Herriko Etxeari beharrezko urraspideen egitea bide hori herriko bideetan sartzeko.

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondoan, erabaki du dohainik eskuratzea kadastrako A 1211 eta A 1212 lursailak, Aiherran kokatuak direnak, bata 7 a 40 ca-koa eta bestea 40 ca-koa, TREQUESSER- DIRASSE-LOUISIN kideena dena, eta Bikaldeko Bidea deituko dena.

Gainerako gaiak:

- Azken erroldako biztanle kontaketa ofiziala: 1 114 aihertar
- Elbarrituendako helgarritasuna eta obrak Herriko Etxean – B proiektuaren onartzea Atxikirik Euskal Elkargoaren Helgarritasun Batzordeari eman erabakia eta planoen zirrimarrak...
- Animalia herratuez arduratzea: galde anitz ukan ondoan, Txakurrak elkarteari kidezeko gogoeta egin dugu – Oraingo ez dugu kideza hartuko, baina herritarrei laguntza galdegiten diegu baita ere zentzu ona ukaitea kudeatzeko biziki zail diren arazoak gerta ez daitezen.
- Liztorren kontrako tratamendua: proposatu da, prebentzio gisa, udaberrian zepoak plantan ezartzea. Erabiltzeko azalpenak herriko aldizkarian izanen dira.
- Asisetako epaimahaikideak zozketa bidez hautatu dira: OTONDO anderea eta LAHIRIGOYEN jauna hautatu dira prestaketa zerrendan izateko.
- Elkartasunezko Garraioen elkartearen sortzea: Aiherran bizi den Yves Martin jaunak proposatu du elkarte baten sortzea joan-etorrien antolatze eta proposatzeko.

- Trinketaren eta herriko gelen erabiltzeko baldintzak osagarri betebeharrei egokituko dira irail hastapenetik goiti.
- Herriko jantegi berriko obrak kasik bururatuak dira eta eskola sartzeko irekiko da; prezatzekoa da.
- IZPINDAR elkartearen gutuna irakurri dugu (energia berriztagarrien garapena); elkarteko bi kide aihertarrak dira (Daniel Hegoburu eta Emmanuel Lahirigoyen); hitzordu bat proposatuko da argibide gehiagoren ukaiteko.
- HTHP: argibideak urririk diren errekurtsioei buruz eta Estatuaren jarrerari buruz, honek otsailaren 22an bozkatu HTHPren legezketasuna dudan ezartzen baitu. Kontrako bi jarrera, errekurtsioek eskatzen baitute gune berrien eraikigarritasuna, baina Estatuak dekretu batean adierazi baitu gune gehiegi irekiak direla jadanik.
- Euskal Elkargoari buruzko argibideak eta auzapezaren eginkizunari buruz – Jaun auzapezak 3 urtez Hazparnealdearen ardura ukanen du, eta karia horretara Euskal Elkargoaren Batzorde Betezarazlearen kide izanen da
- **Herritarren artean kafea hartzea proposatu da: irailaren 6an, igandean, 9:00etatik 11:00ak arte, Gozategian.** Eta aihertar laborariak interesatuak izanez geroz, merkatu bat antolatuko da elkarrekin batean, irailaren 27an, igandean.

Bilkura bururatu da 22:30ean

Auzapeza, Arño Gastambide